



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 18a

135. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak. Foru-lege proiektu hori 2024ko azaroaren 5eko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari aurkeztua.

Nafarroako aurrekontu orokorra da gobernu batek une bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen lehentasunak finkatzeko eta politika publikoak gauzatzeko duen oinarrizko tresna.

Aurrekontuaren bidez, ildo ideologiko bat zehazten da, zeinaren xedea den gobernu osatzen duten alderdi politikoen ideiekin bat datozen politika publikoak ezartzea, eta, kasu honetan, baita gobernu sostengatzen duten eta hari agintean eusten diotenen ideiekin bat datozenak ere.

Egungo Nafarroako Gobernu honako hauek osatzen dute: formetan eta politiketan erradikalizatuta dagoen sozialismo batek, nazionalismo moderatu batek, koherentziarik gabea eta EAEn baino askoz ere muturrekoagoa dena, eta komunismo populista erradikal batek. Horien lagun da ezker abertzale erradikala, eta horixe izaten da, azken batean, funtsezko elementu erabakigarria aurrekontuen onespenean; hori horrela, ezker

abertzaleak berebiziko pisu politikoa eta eragina ditu aurrekontuaren idazketan.

Alderdi politiko horien lotura dira beren jarreraren erradikalitasuna, beraiek bezala pentsatzen ez duenaren bazterketa eta botereari edonola eustea; bada, alderdien nahas-mahas horrek irudikatzen duen gizarte-eredua oso urrun dago UPNk gizarte nafarra eta ekintza politikoa ulertzeko duen modutik, eta gure alderdi politikoaren ustez Nafarroak epe laburrean, ertainean eta luzean behar duen horretatik.

Orobat, dagoeneko jakina da guztiontzat PSOEek, PSNk eta EH Bilduk akordio bat dutela erakundeetan elkar goratzeko eta batak bestearen aurrekontuen onespena babesteko.

Horregatik, ageriko da PSOEek EH Bilduren babesa izanen duela Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzeko, EH Bilduk PSNren babesa izanen duela Iruñeko Udaleko aurrekontuak onesteko, eta PSNk EH Bilduren babesa duela Nafarroako Aurrekontu Orokorrak onesteko.

Era berean, eztabaida ezina da EH Bilduk definitzen duela Nafarroako zerga-politika PSNren eskutik, eta, horren ondorioz, Espainiako presio fiskalik handiena jasaten ari gara nafarrok hainbat esparrutan, eta, egin dituzten adierazpen publikoaren arabera, ez da aurreikusten Nafarroako klase ertainaren zergetan arintze nabarmenik eginen denik.

Beraz, gobernu honen asmoa da zerga-politikaren eta aurrekontuaren kudeaketa eraginkorren arteko desoreka sakona finkatzea, nafarrok orain arte ikusi baitugu inoiz baino zerga gehiago ordaintzen ditugula, eta, aldiz, Nafarroaren historiako zerbitzu publiko okerrenak jasotzen ditugula.

Aurrekontu-akordio honen bidez, PSNk eta EH Bilduk proposatzen digutena da lehiakortasun fiskala galduz jarraituko duen Nafarroa bat, eta, beraz, enplegua sortzen duen inbertsiorako era-

kargarritasuna galtzen duena; aldi berean, ez dago konpromisorik baliabide publikoen kudeaketa eraginkorrik egiteko, herritarrei ematen zaizkien zerbitzu publikoak hobetze aldera.

UPNren iritiz, aurrekontu txarra da Nafarroarentzat, aplikatzen dituen politika publiko gehienetan porrot egiten duen eredu bat finkatzen baitu.

Gure ustez, aurkeztutako aurrekontu-proiektuak ez du apustu garbirik egiten gizarte nafarrak dituen arazo nagusiak konpontze aldera, hala nola osasunarekin, etxebizitzarekin eta gazteen egoerarekin lotutako arazoak; izan ere, bere horretan eusten zaie duela zenbait urte ezarri ziren eta Nafarroak atzera egitera eraman duten politikari, eta, beraz, akats bera errepikatzen dute edukian eta forman.

Laburbilduz, proposatzen digute Nafarroak jarraitu dezala parametro nagusietan postuz jais ten beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, eta ez da ikusten inolako aldaketarik emaitza txarrak ematen ari diren eta oso garrantzitsuak diren gaitetan gauzak egiteko moduan.

Hori guztia dela-eta, UPN talde parlamentarioak osoko zuzenketa hau aurkezten dio 2025eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren foru-lege proiektuari.

2. ZUZENKETA

VOX NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa: 2025. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua itzultzea.

Aurrekontu-proiektu honek erakusten du, berriz ere, PSN, EH-Bildu, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin taldeek sostengaturiko Nafarroako Gobernu honek ez duela inongo interesik ekonomia lehiakor eta oparora sustatzeko, eta berresten du halabeharrezko gaitasuna duela zergadunen dirua modu ez eraginkorrean kudeatzeko, gobernu-bazkideei eta babesle nagusi duen eta bere baldintzak inposatzen dituen EH Bilduri kasu eginez. Gogora ezazu segan egitera zetozela esan zizutela.

Diru publikoa herritarrengandik dator, berriro ere erauzlea, harraparia eta pelagikoa dela erakutsi digun fiskalitateetik. Izan ere, diru publikoa ez da ateratzen ezin agortuzko putzu magiko batetik. Diru-sarrerak Nafarroako familien eta enpresen poltsikoetatik datoz, horiek sortzen dituzten ekonomia errealetik. Herritar horiek espero dute beren lanetik ateratako baliabideak zuzentzeko, eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzea eta hazkunde ekonomi-

koa, zerbitzuak eta ongizatea sustatzeko erabiltzea. Aurrekontu hauek berriz ere erakutsi dute Nafarroak infernu fiskal bat izaten jarraituko duela; are gehiago, hori posible bada.

Aurrekontu-proiektu honetan Nafarroaren historiako gastu publiko handiena aurkitzen dugu, 6.431 milioi, 2014ko aurrekontuko 3.800 milioien aldean esaterako. Hala, gutxi batzuen interesak asebetetzeko partidek hazkunde neurrigabea izan dute, eta ez da inongo ahaleginik egin beharrezkoa ez den gastu publikoari eusteko. Nafarroaren historiako gastu publiko handiena da, eta izan daitezkeen zerbitzu okerrenak jasotzen ditugu.

Aurrekontu honek burokrazia hedatzeari ematen dio lehentasuna, hura soildu beharrean, eta horrek zergadunarekiko erabateko mespretxua adierazten du. Bikoiztasunak desagerrarazi eta baliabideak optimizatu ordez, Administrazioaren aparatua etengabe handitzen ari da.

Dirulaguntzetara eta laguntzetara bideratutako partidak murrizteko zantzurik ez dago; aldez, zentzugabeki hazten dira. Diruz laguntzeko apustua egiten da, pizgarriak eman beharrean. Ekintzailetzarako ingurune lagungarriak ez da sortzen ari.

Azpiegiturei dagokionez, iraingarria da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidea eta AHTa aintzat hartu gabe jarraitzea. Nafarroako Ubidea eta Nafarroako eskualde zabalak ureztaluri bihurtzea ezinbestekoa da Nafarroako nekazaritza-sektorerako, eta ubidearen bigarren fasea gauzatu ezean, Nafarroa aurrerabidetik urrunduko da eta enplegu- eta aberastasun-aukerak galduko ditu.

AHTari dagokionez, Gobernuak, EH Bilduren nahiari jarraituz, Nafarroa basamortu ekonomiko eta enpresarial bihurtzeko eginahaletan dabil, horixe nahi baitute. Gastu soziala handia da, ez da eraginkorra ordea. Diru gehiago zerbitzu okerragoak izateko: hala erakusten da bolumenak ez duela beti eraginkortasuna ekartzen. Osasungintza da adibide argia: alor horretara bideratutako aurrekontua izugarria bada ere, osasun-zerbitzuak okertzen ari dira urtetik urtera, eta herritarrek gero eta zailagoa dute arreta mediko egokia eta kalitatekoa jasotzea. Nafarroak ongi funtzionatzen duen eta eskuragarria den osasun-zerbitzua merezi du. Babes sozialeko zerbitzu eta prestazio publikoetan inbertitzeak esan nahi du pertsonen bizimodua hobetzeko emaitza antzemangarriak lortzea, eta ez gastatze hutsagatik gastatzea. Ohitura bihurtu dute aurrekontuetan funts gehiago jarritzea trukean gutxiago jasotzeko.

Halaber, aurrekontuak joera kezkarria erakusten du, euskararen sustapenean gastu antzua egiten baita, hizkuntza hori oso urrun dagoenean

nafar gehienen ohiko hizkuntza izatetik, datuek adierazten duten moduan. Baliabideak osasungintzara, kalitatezko hezkuntzara, azpiegiturak egiteko inbertsioetara eta horien moduko premiazko beharrietara bideratu ordez, diru publikoa kultur manipulazioko kanpaina baterako erabiltzen da, non euskara aukera ez baina inposizio gisa aurkezten baita. Hori, beren egunerokoan euskara garrantzitsutzat ez duten herritarrenganako errespetu falta izateaz gain, burugabekeria ekonomiko ere bada. Nafarroak ez du hizkuntzagatik edo auzi identitarioengatik banatua izateko beharrik.

Aurrekontu hau diru-xahuketaren politikari eta zerbitzu okerragoak emateko zerga-politika predatzailearen sostenguari eginiko monumentu gorena da. Egunero lan egiten duten eta aurrera doan Nafarroa ikusi nahi duten herritarren ahaleginari iseka egitea da.

Gobernu honek murriztu egin behar du emanorra ez den gastua, gastu burokratikoa, bai eta beharrezkoak ez diren dirulaguntzak ere, eta utzi behar dio Nafarroa familiek eta enpresek finantzatutako GKE bat balitz bezala tratatzeari eta bere interes politiko eta identitarioetarako mugarik gabe erabiltzeari. Nafarroa herritar askez osatuta dago, eta horiek ekonomia distiratsua, administrazio efizientea eta egiazko aurrerabidezko etorkizuna merezi dute. Bai eta, jakina, nafarrez kezkatzen den gobernu bat ere, eta ez bere interes gezurrezkoen, demokrazia zer den ez dakiten –eta axola ez zaien– alderdien menpe egotera eramaten baitute.

Horregatik guztiagatik aurkezten dio osoko zuzenketa hau Nafarroako Parlamentuko Vox parlamentarien elkarteak 2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko lege-proiektuari, eta eskatzen du gobernu erregionalari itzul dakion, harengandikoa baita ekimena.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa: 2025. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua itzultzea.

2025. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek gure erkidegoak dituen erroka handiei aurre egiteko borondate argia islatu beharko lukete, eta hauek dira erroka nagusiak: lehiakortasuna galtzea, presio fiskal neurrigabea, enpresen ihesa, autonomoendako gero eta zailtasun handiagoak, etxebizitza eskuratzeko krisia, bereziki gazteentzat, osasun-sistemaren egiturazko gabeziak, pobrezia-

ren areagotzea eta azpiegituren arloko utzikeria, beste askoren artean. Hala ere, ez dugu ikusten Gobernuak aurkezturiko proiektuak premisa horiei erantzuten dienik. Aurreko ekitaldietakoen moduan, dokumentu kontinuitate eta anbiziorik gabea da, Nafarroaren hazkundera eta ongizatea mugatzen duten egiturazko gabeziak betikotzen dituen.

Nafarroak modu kezkarrian egin du atzera erregio-lehiakortasunari dagokionez. Ekonomisten Elkargoaren arabera, lehiakortasun galera horren arrazoi nagusietako bat presio fiskal altua da. Fundación para el Avance de la Libertad eta Tax Foundation fundazioen azken txostenaren arabera, Nafarroa 19tik 14. postuan dago lehiakortasun fiskalari dagokionez, eta negatiboki nabarmentzen da errentaren, ondarearen eta sozietateen gaineko zergetan. Beste eskualde batzuetan, Euskadin esaterako, % 24ko zerga-tasa aplikatzen da Sozietateen gaineko Zergan; aldiz, Nafarroak % 28ko zama ezartzen die bere enpresei, eta horrek enpresen jardura itoarazi eta inbertsioa uxatzen du.

Desdoitze horrek begi bistako ondorioak ditu: Nafarroako per capita BPGa, 2007an Europako batezbestekoa baino % 28 handiagoa zena, 2022an % 3koa soilik izateraino jaitsi da. Atzerriko inbertsio zuzena minimo historikoetara erori da –6,51 milioi euro soilik 2023an–, eta horrek adierazten du gure lurraldeak kapitalak erakartzeko lehiakortasun eskasua duela.

Nafarroako ekoizpen-sarea, zeinetan autonomoen sektoreak pisu handia baitu, krisi kezkarri batean murgilduta dago. 2024an, orain arte, Nafarroak 223 autonomo galdu ditu; aldiz, Espainian 32.712 autonomo berri ezarri dira. Kolektibo horretako kideek, kolektibo zaharkitua izateaz gain, zailtasun administratiboari aurre egin behar izaten diete beren egunerokoan, hala nola Administrazioak ezartzen dien gehiegizko burokraziari; izan ere, urtean 14 egun galtzen dituzte, batez beste, izapide administratiboak egiten. Nafarroako gazteen artean, ekintzailetzarako bokazioa Espainiako baxuenetarikoa da, eta horrek arriskuan jartzen du sektorearen etorkizuna, sektoreak dituen zailtasunak agerian jartzeaz gain. Gaur egun, autonomo izatea izugarritzko balentria da.

Ezinbestekoa da autonomoen zama fiskal eta administratiboak arinduko dituzten politikak inplementatzea eta enpleguaren eta aukeren sorrerarako lagungarri izan den ingurunea sortzea eta, halaber, giro soziala aldatu eta ekintzailetzarako pizgarriak ematea, aukera gisa ikus dadin, eta ez ezin gaindituzko erroka gisa.

Gobernuak jarraitzen du presio fiskala justifikatzen esanez ongizatearen estatuaren sostengua

dela, baina errealitatea da ez direla baliabideak eraginkortasunez kudeatzen ari.

Ongizatearen estatuaren oinarrietako bat osasungintza da, baina Gobernuaren kudeaketak kolapsoaren mugara eramana du osasun-sistema. Itxaron-zerrendak Nafarroan inoiz izandako luzeenak dira, eta oinarritzko osasun-laguntza mugamugan dago, batez ere landa eremuetan, horietan zerbitzuak ixten ari baitira pixkanaka. Kontuen Ganberak behin baino gehiagotan adierazi du osasungintzaren arazoa ez dela aurrekontuzkoa, kudeaketa ez eraginkorarekin lotutakoa baizik. Eta, gure ustez, aurrekontu hauek aurreko urteetako bide beretik doaz, nahiz eta osasungintzaren egoerak, hobetu ordez, okerrera egin gure erkidegoan. Halaber, azken aldiko berria da zenbait aseguru-etxe Mufacetik ateratzen direla, eta horren eraginez baliteke gure osasun-sistema are egoera zailagoan egotea, gure erkidegoko sistema publikoak mutualitate horretatik kanpo geratuko diren milaka pertsona artatu beharko baditu.

Alderdi Popularretik proposatzen dugu osasun-sistemaren erreforma sakona, jarduera-ardatz nagusi hauek izanzen dituen: oinarritzko osasun-laguntzaren desburokratizazioa, itxaron-zerrenden murrizketa eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak sendotzea osasun mentalaren alorrean, bereziki haur eta gazteentzat.

Hezkuntzaren arloan, Nafarroan lortutako emaitzek okerrera egin dute nabarmen. 2022ko datuak alderatzen baditugu 2012koekin, matematikan atzera gehien egin duen autonomia-erkidegoa gara, zientzietan atzera gehien egin duen bigarrena, eta irakurketan atzera gehien egin duen hirugarrena, PISA txostenaren emaitzen arabera. Alor horretan, ikusten dugu Gobernuak kezka handiagoa duela hezkuntza-eredu jakin batzuk hedatzearekin, esaterako 0-3 zikloaren doakotasuna gure erkidegoko familia guztiei hedatzearekin baino. Horrek bai erakutsiko luke doakotasuna hezkuntza-ziklo guztietara zabaltzearen aldeko apustu argia, eta Administrazioak kontziliazioaren defentsan duen zeregina nabarmenduko luke. Baina, tamalez, ikusten dugu hori ez dela horrela.

Egoera sozialari dagokionez, datuak kezkarriak dira. Azken urtean, pobreak % 18,6 egin du gora Nafarroan. Horrek erakusten du dirulaguntzetan soilik oinarritutako politikak ez direla behar bezalako emaitzak ematen ari. Horrek berresten du azken hamar urteotako datuen joera, Nafarroa baita, berriz ere, pobrezia gehien hazi den autonomia-erkidegoa (% 23,7). Ezin da jarraitu joera hori ez ikusia egiten. Ekimen desberdinen bidez ohar-tarazten ari gara dirulaguntzetan oinarritutako politikak, gizarteratzea helburu ez dutenak, jasanezi-

na den egoera kronifikatzen ari direla, halakoa baita bai herritarrentzat bai Administrazioarentzat berarentzat ere. Nafarroako Gobernuak inklusioaren, prestakuntzaren eta lanaren alde egin beharko luke joera hori murrizteko, hori lehengoratzeko urteak beharko badira ere.

Etxebizitzaren arloko politiketako funtsezko ardatza izan beharko lukete Gobernu honentzat, bizi dugun egoera kezkarria dela-eta, alokatzeko eta erosteko prezioek inoiz ez bezala egin baitute gora eta, horrenbestez, Nafarroako gizarteak zailtasunak baititu etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.

Etxebizitzarako eskubidea oinarritzko eskubide soziala da, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (25.1. artikulua), Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunean (11.1. artikulua) eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunean (34.3. artikulua) jasotakoaren arabera. Nazioarteko tresna horiek ezarritakoarekin bat, Espainiako Konstituzioaren 47. artikuluan ezartzen da herritar guztiek etxebizitza duinaz eta egokiaz gozatzeko eskubidea dutela, eta bote-re publikoei agintzen die eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak eta arauak abian jar ditzaten.

Etxebizitza premia-premiazko ondasuna da, beste eskubide batzuk gauzatzeko ezinbestekoa eta lotura zuzena duena pertsonen eta beren familien bizi kalitatea hobetzearekin. Halaber, funtsezkoa da gizarte bazterkeriako egoerak prebenitu eta gainditzeko. Etxerik gabe, gazteek ezin dute emantzipatu, familiek ezin dute hazi eta pertsonak zailtasunak dituzte garapen pertsonal duina izateko.

Gure kezka adierazten dugu Nafarroako Gobernuak egoera horren aurrean duen konpromiso faltagatik; izan ere, politika eraginkorrak abian jarri ezean, egoerak okerrera egiten jarraituko du. Beharrezkoa da neurriak ezartzea alokairurako pizgarriak emateko, etxebizitzaren eraikuntza sustatzeko, lankidetzaren publiko-pribatua bultzatzeko eta pizgarri fiskalak ezartzeko, bereziki gazteei eta sektore zaurgarrienei zuzenduak, etxebizitza alokatu edo eros dezaten. Hala ere, Gobernuak etxebizitzaren arloan emandako erantzun bakarra tentsiopeko eremuak mugatzea izan da, eta jada ikusi da beste erregio eta herrialde batzuetan estrategia hori ez dela eraginkorra. Politika horren bidez lortu da prezioak apur bat jaitea, baina horren eraginez arras murriztu da merkatuan dauden etxebizitzaren kopurua eta etxebizitza eskuratzeko arazoa are gehiago larritu da.

Bestalde, azpiegiturak ezinbestekoak dira Nafarroaren garapen ekonomikorako, baina alor horretan dauden gabeziak gero eta nabarmenagoak

dira. Abiadura Handiko Trenak (AHT) atzerapenak metatzen jarraitzen du, eta horrek arriskuan jartzen du Nafarroa Europako korridoreetan integratzea. A-15 eta A-21 autobiek zati garrantzitsuetan bikoiztu gabe jarraitzen dute, eta horrek eragina du garraioaren segurtasunean eta efizientzian. Gainera, Nafarroako ubidearen bigarren fasea geldiarazteak gure lurraldearen garapenarekiko ikuspegi eta konpromiso falta erakusten du.

Hemen azaldutako arazoei aurre egitetik urrun, Nafarroako Gobernuak 2025erako aurkeztu dituen aurrekontuek euskararen alorreko partidak eta kideko elkarte edo udalantzako partida izendunak gainfinantzatzeko dituzte, eta Nafarroako Gobernuak boterean mantenduko bada egin behar izaten dituen amore emateen erakusgarri argia dira.

Aurrekontu hauek albo batera uzten dituzte gure lurraldeak dituen egiturazko arazoak. Presio fiskal altuak, lehiakortasuna galtzeak, autonomoen zailtasunek, etxebizitza eskuratzeko krisiak, osasun-sistemaren okertzeak eta hezkuntzaren atze-

ra egiteak konponbide ausartak eta eraldatzaileak behar dituzte. Ordea, aurrekontu hauek interes alderdikoiak eta Gobernuari sostengu ematen dioten alderdien lehentasun nazionalistak dituzte gidari. Langileen ordainsariak, enpresa publikoen hedatzea eta kargu eta goi mailako postuen bikoiztasuna neurrigabe hazten diren bitartean, oinarritzko gaiak alde batera uzten dira. Gainera, Nafarroako Gobernuak lau milioi euro jarri ditu bere bazkide EH Bilduk bere kausetara bidera ditzan, eta ezin dugu ahaztu funts horiek zergadun nafar guztiengandik datozela. Arestian aipatutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Popularretik uste dugu aurrekontu-proiektu hau ez dagoela gure erkidegoak aurrean dituen erronken maila berean eta, horrenbestez, eskatzen dugu Gobernuari itzul dakiola eta Nafarroako herritarren egiazko beharri-zanak aintzat hartuko dituen proiektu berri bat egin dadila.

